

Interes orokorreko xedapenak, buletinetan argitaratuta (E.A.E., E.H.A.A., A.L.H.A.O., B.A.O., G.A.O. y E.B.A.O.), **2019ko apirilaren 6tik 12rako astea.**

I.- HITZARMEN KOLEKTIBO SEKTORIALAK:

2019/04/08 Estatuko Aldizkari Ofiziala

- TMS/397/2019 Agindua, apirilaren 4koa, zeinaren bitartez aldatzen den TAS/2865/2003 Agindua, urriaren 13koa, Gizarte Segurantzaren sisteman hitzarmen berezia arautzen duena. **5143 xedapena – 6 or.**

2019/04/10 Estatuko Aldizkari Ofiziala

- Ebazpena, 2019ko martxoaren 19koa, Enplegu Zuzendaritza Nagusiarena, zeinaren bitartez erregistratzen eta argitaratzen den harakintza-industriaren Estatuko hitzarmen kolektiboa. **5401 xedapena– 64 or.**

2019/04/12 Estatuko Aldizkari Ofiziala

- Ebazpena, 2019ko martxoaren 29koa, Lanaren Zuzendaritza Nagusiarena, zeinaren bitartez erregistratzen eta argitaratzen diren 2018rako soldata berraztertzeari buruzko akordioa eta behin betiko soldaten taulak, animalientzako elikagai konposatuen fabrikaziorako Estatuko hitzarmen kolektiboaren barruan. **5541 xedapena - 4 or.**

2019/04/12 Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala

- Gipuzkoako Ehunen Merkataritzaren lan hitzarmenaren epaia. **2301 xedapena - 7 or.**

II.- XEDAPEN OROKORRAK:

E.A.O. (Estatuko Aldizkari Ofiziala)

2019/04/06

- **NEKAZARITZA, ARRANTZA ETA ELIKADURA MINISTERIOA.-Lehentasunezko Elkarte Asoziatiboak.-** 161/2019 Errege Dekretua, martxoaren 22koa, zeinaren bitartez aldatzen den ekainaren 27ko 550/2014 Errege Dekretua. Errege Dekretu horren bidez garatzen dira Lehentasunezko Elkarte Asoziatiboak errekonozitzeko eta horiek Lehentasunezko Elkarte Asoziatiboen Erregistro Nazionalan inskribatu eta baja emateko baldintzak eta prozedura, eta hori nekazaritzako produktuen arloko kooperatiben eta beste elkarte batzuen integrazioa sustatzeko abuztuaren 2ko 13/2013 Legean ezarrita dago. **5086 xedapena – 15 or.**
- **PRESIDENTETZAREN, GORTEEKIKO HARREMANEN ETA BERDINTASUNAREN MINISTERIOA.-Ikus-entzunezkoak.-** 241/2019 Errege Dekretua, apirilaren 5koa, zeinaren bitartez aldatzen den urriaren 30eko 988/2015 Errege Dekretua, Europako zenbait ikus-entzunezkoren aldez aurreko finantziazioaren obligazioaren erregimen juridikoa arautzen duena. **5087 xedapena - 2 or.**
- **TRANTSIZIO EKOLOGIKORAKO MINISTERIOA.-Energia elektrikoa.-** 244/2019 Errege Dekretua, apirilaren 5koa, energia elektrikoaren autokontsumorako baldintza administratibo, tekniko eta ekonomikoak arautzen dituena. **5089 xedapena - 46 or.**

2019/04/08

- **BALORE MERKATUAREN BATZORDE NAZIONALA.-Inbertsio kolektiboko erakundeak.-**1/2019 Zirkularra, martxoaren 28koa, Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalarena, zeinaren bitartez aldatzen den otsailaren 4ko 1/2009 Zirkularra, inbertsio kolektiboko erakundeen inbertsio-bokazioaren araberako kategoriei buruzkoa, ekainaren 9ko 3/2011 Zirkularrak partzialki aldaturikoa. **5145 xedapena – 4 or.**

2019/04/09

- **LANAREN, MIGRAZIOEN ETA GIZARTE SEGURANTZAREN MINISTERIOA**

- **Gizarte Segurantzaren.** - Ebazpena, 2019ko martxoaren 28koa, Gizarte Segurantzaren Estatu Idazkaritzarena, zeinaren bitartez ezartzen den Gizarte Segurantzaren jardura prebentiboen Plan orokorra, zeina Gizarte Segurantzaren mutualitate kolaboratzaileek ezarri beharko duten 2019. urterako jarduerak planifikatzerakoan **5241 xedapena- 8 or.**
- **Enplegu politika.**- Ebazpena, 2019ko apirilaren 8koa, Enpleguaren Estatu Idazkaritzarena, zeinaren bitartez argitaratzen den 2019ko apirilaren 5eko Ministroen Kontseiluaren Erabakia, zeinak onesten duen Reincorpora-t plana, Iraupen luzeko langabezia prebenitu eta murrizteko hiru urteko plana (2019-2021). **5242 xedapena - 90 or.**

- **TRANSIZIO EKOLOGIKORAKO MINISTERIOA.** - **Politika energetikoa.** - TEC/406/2019 Agindua, apirilaren 5koa, zeinaren bitartez ezartzen diren Merkatuaren eta Lehiakortasunaren Batzorde Nazionalarentzako orientabideak, politika energetikoaren alorrean. **5244 xedapena - 6 or.**

2019/04/10

- **GORTE NAGUSIAK- Premiazko neurriak.**

- Ebazpena, 2019ko apirilaren 3koa, Diputatuen Kongresuarena, zeinaren bitartez agintzen den argitara dadila martxoaren 29ko 10/2019 Errege Lege-dekretuaren baliozkotze akordioa. Errege Lege-dekretu horren bitartez, 2019. urterako luzatzen da autonomia erkidegoen eta tokiko erakundearen superabitarentzako erabilera inbertsio finantzarioki iraunkorrak egiteko, eta beste neurri batzuk hartzen dira izaera nazionalako gaikuntza duten tokiko erakundeetako langileen funtzioei dagokienez. **5323 xedapena - 1 or.**
- Ebazpena, 2019ko apirilaren 3koa, Diputatuen Kongresuarena, zeinaren bitartez agintzen den argitara dadila Enpleguaren eta okupazioaren alorrean, emakumeen eta gizonen arteko tratua eta aukera berdintasuna bermatzeko martxoaren 1eko 6/2019 Errege Dekretuaren Baliozkotze akordioa. **5324 xedapena - 1 or.**

- Ebazpena, 2019ko apirilaren 3koa, Diputatuen Kongresuarena, zeinaren bitartez agintzen den argitara dadila Etxebizitza eta alokairuaren alorreko premiazko neurriei buruzko martxoaren 1eko 7/2019 Errege Lege-dekretuaren Baliozkotze akordioa. **5325 xedapena - 1 or.**
- Ebazpena, 2019ko apirilaren 3koa, Diputatuen Kongresuarena, zeinaren bitartez agintzen den argitara dadila Babes sozialerako eta lanaldian prekaritate laboralaren aurka egiteko premiazko neurriei buruzko martxoaren 8ko 8/2019 Errege Lege-dekretuaren Baliozkotze akordioa. **5326 xedapena - 1 or.**
- Ebazpena, 2019ko apirilaren 3koa, Diputatuen Kongresuarena, zeinaren bitartez agintzen den argitara dadila martxoaren 29ko 9/2019 Errege Lege-dekretuaren Baliozkotze akordioa. Errege Lege-dekretu horrek aldatu egiten du aldi baterako laneko enpresak arautzen dituen ekainaren 1eko 14/1994 Legea, portuko zamaketarien jarduera horretara egokitzeko eta langileen erregimena legez egokitzeari amaiera emateko, salgaien manipulaziorako portu-zerbitzua eman dezaten. **5327 xedapena - 1 or.**
- **GORTE NAGUSIAK. - Europar Batasuna. Ebazpena, 2019ko apirilaren 3koa, Diputatuen Kongresuarena,** zeinaren bitartez agintzen den argitara dadila Britainia Handiko Erresuma Batua eta Ipar Irlanda Europar Batasunetik Europar Batasunaren Tratatuaren 50. artikuluan ezarritako akordiorik lortu gabe ateratzeko kontingentzia-neurriak hartzeko martxoaren 1eko 5/2019 Errege Lege-dekretuaren Baliozkotze akordioa. **5328 xedapena - 1 or.**
- **OGASUN MINISTERIOA. - Ekintzaileak.** - Ebazpena, 2019ko apirilaren 5koa, Zerga Administrazioako Espainiako Agentziako Zuzendaritza Nagusiarena, zeinaren bitartez ezartzen den erregistro-arantzelen ordainketaren salbuespena aplikatzeko prozedura, Ekintzaileei eta beren nazioartekotzeari laguntzeko irailaren 27ko 14/2013 Legeari jarraikiz. **5329 xedapena - 3 or.**

2019/04/11

- **BARNE MINISTERIOA.- Zirkulazioa. Neurri bereziak.** -Ebazpena, 2019ko martxoaren 25ekoa, Trafikoko Zuzendaritza Nagusiarena, zeinaren bitartez zabaltzen den 2019ko urtarrilaren 14koaren VII. Eranskina, 2019. urtean trafikoa arautzeko neurri bereziak ezartzen dituenak. **5415 xedapena - 2 or.**

E.H.A.A. (Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria)

2019/04/11

- **SEGURTASUN SAILA.** - AGINDUA, 2019ko martxoaren 29koa, Segurtasuneko sailburuarena, zeinaren bidez onartzen baitira Trafiko Istripuen Biktimen Euskal Erregistroan erregistratu behar diren datuak, bai eta bidali behar diren inprimakiak, irizpideak eta epeak ere. **1843 xedapena - 17 or.**

2019/04/12

- **SEGURTASUN SAILA.** - EBAZPENA, 2019ko apirilaren 8koa, Araubide Juridikoaren, Zerbitzuen eta Hauteskunde Prozesuen zuzendariarena, Jendaurreko Ikuskizunen eta Jolas Jardueren Legea garatzeko Erregelamendua onartzen duen otsailaren 5eko 17/2019 Dekretua aldatuko duen dekretu-proiektua jendaurrean jartzeko dena. **1872 xedapena - 1 or.**

A.L.H.A.O. (Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofiziala)

2019/04/10

- 10/2019 Foru Araua, martxoaren 27koa, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren aldaketari buruz. **1066 xedapena - 2 or.**
- **FORU AGINDUAK (OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA).**- 170/2019 Foru Agindua, apirilaren 5koa, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuarena. Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren eta ondarearen gaineko zergaren 2018ko ekitaldiko aitorpenak aurkezteko arauak eta modalitateak onestea. **1123 xedapena - 5 or.**

2019/04/12

- **FORU ARAUAK.** - 11/2019 Foru Araua, martxoaren 27koa, Arabako Lurralde Historikoko Foru Ondareari buruz. **1085 xedapena - 42 or.**
- **FORU GOBERNU KONTSEILUAREN FORU DEKRETUAK.** - Foru Gobernu Kontseiluaren 19/2019 Foru Dekretua, apirilaren 2koa. Onestea abenduaren 23ko 110/2008 Foru Dekretua aldatzea, Foru Ogasunean aitorpenak eta autolikidazioak bide telematikoz aurkezteko baldintza eta eskakizun orokorrak arautzen dituenak. **1121 xedapena - 2 or.**

• **FORU AGINDUAK (OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA).**

- 179/2019 Foru Agindua, apirilaren 5koa, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuarena. Onestea 130 eredua, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergarena. Jarduera ekonomikoen ordainketa zatikatua. Jarduera hastea. **1128 xedapena - 4 or.**
- 160/2019 Foru Agindua, martxoaren 29koa, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuarena. Aldatzea Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko diputatuaren abenduaren 10eko 770/2014 Foru Agindua, onesten duena 187 eredua, zeinaren bidez egiten baita, batetik, talde inbertsioko erakundeen kapitalaren edo ondarearen akzioei edo partaidetzei buruzko informazio aitortpena eta, bestetik, akzio edo partaidetza horiek eskualdatu edo itzultzearen ondorioz lortutako errenta edo ondare irabazien gainean pertsona fisikoen errentaren gaineko zerga, sozietateen gaineko zerga eta ez-egoiliarren errentaren gaineko zerga direla-eta egindako atxikipenen eta konturako sarreraren urteroko laburpena. Urteroko laburpena. **1134 xedapena - 9 or.**

B.A.O. (Bizkaiko Aldizkari Ofiziala)

G.A.O. (Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala)

2019/04/08

- **BIDE AZPIEGITURETAKO DEPARTAMENTUA.** - Gipuzkoako Foru Aldundiaren Errepide Sarearen Katalogoaren aldaketa. **2123 xedapena - 3 or.**

2019/04/09

- **EKONOMIA SUSTAPENETAKO, LANDA INGURUNETAKO ETA LURRALDE OREKAKO DEPARTAMENTUA.** - 0273LI/2019 Foru Agindua, apirilaren 4koa, 2019ko martxoaren 11ko 0231/2019 Foru Aginduaren 12. artikulua aldatzen duena, Gipuzkoako Lurralde Historikoan ibai arrantzaren aprobetxamenduari buruzko araudia garatuko duena, 2019rako. **2281 xedapena - 2 or.**

E.B.A.O.(Europar Batasunaren Aldizkari Ofiziala)

Kepa Bilbao Zubiaur

Tfno.: 94 425 25 15 Fax: 94 423.22.95

e-mail: serviciosjuridicos@mutualia.es

.....

MUTUALIA, MUTUA COLABORADORA CON LA SEGURIDAD SOCIAL N.º 2
HENAO, 26 - 48009 BILBAO